



*Bigarren Lehendakariordea eta Lan eta Enpleguko Sailburua  
Vicelehendakari Segunda y Consejera de Trabajo y Empleo*

**AGINDUA, 2022KO EKAINAREN 8KOA, BIGAREN LEHENDAKARIORDE ETA LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUARENA. HONEN BIDEZ, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN BIZKAIKO ERAIKIN ETA LOKALEN GARBIKETA-SEKTOREAK KOMUNITATEARI FUNTSEZKO ZERBITZUAK EMATEN JARRAITZEA BERMATZEN DA, EKAINAREN 9, 10, 20 ETA 21AN IZANGO DEN GREBA DEIALDIAN.**

ELA sindikatuko ordezkariak Bizkaiko eraikin eta lokalen garbiketako sektoreko langileak grebara deitu dituzte 2022ko ekainaren 9, 10, 20 eta 21erako. Greba ekainaren 8ko 22:00etan, hurrenez hurren, eta ekainaren 19ko 22:00etan hasiko da.

Hauek dira grebaren helburuak, deialdia egin dutenen arabera “*Bizkaiko eraikin eta lokalen garbiketa-hitzarmenean honako hauek lortzea: - Sektorearen prekaritate-egoera ezabatuko duen soldata-hobekuntza, eta soldata-arrakala desagerrarazteko aurrerapausoak ematea. - Sektoreko lanaldi partzialak mugatuko dituzten parametroak ezartzea. - Lantokietako lanpostu hutsen estaldura arautuko duten parametroak ezartzea. - Aldarrikapen-plataforman jasotako beste hobekuntza batzuk.*”

Espainiako Konstituzioaren 28.2. artikuluan, langileen greba-eskubidea aitortzen da haien interesak defendatzeko, horixe baita egungo zuzenbide-estatu sozial eta demokratikoak oinarrian dituen funtsezko eskubideetako bat. Konstituzioak, beraz, berdin babesten ditu greba-eskubidea eta beste zenbait eskubide garrantzitsu, hala nola bizia, osotasun fisikoa eta osasuna. Hain zuzen, Konstituzioak bete-betean babesten ditu, bai eskubide horiek guztiak, baita greba egiteko eskubidea ere. Hori dela-eta, adierazitako greba hori egiteak beste oinarritzko eskubide batzuetan izan ditzakeen ondorioak aztertu behar dira nahitaez.

Beraz, greba egiteko eskubidea herritarren gainerako oinarrizko eskubideen kontrakoa izan daitekeenez, eta Konstituzioaren 28. eta 37. artikuluetan xedatuta dagoenaren arabera, gizartearentzako ezinbesteko zerbitzuak mantentzen direla ziurtatzeko neurri egokiak hartu behar dira, auzitan dauden eskubideetako bat bera ere gauzatu gabe gera ez dadin.

Edonola ere, aurreko premisa ondorioztatu ondoren, nabaria da oinarrizko eskubideak murriztuko dituen neurri orok proportzionaltasun-printzipioa zorrotz bete behar duela, eta, hori lortzeko, hiru betekizun edo baldintza bete beharko ditu neurriak: hori aplikatuz gero proposatutako helburua lortu ahal izatea, edo «egokitasun-judizioa»; kasua aztertu ondoren helburu hori eraginkortasun berdinarekin lortzeko neurri apalagorik ez dagoela ondorioztatu izana, edo «premia-judizioa»; eta, azkenik, neurria edo konponbidea orekatua edo neurtua izatea, haren aplikazioaren ondorioz guztion intereserako onura edo abantaila gehiago eragiten direlako auzian dauden beste ondasun edo balioetarako eragiten diren kalteak baino, hau da, «proportzionaltasun-judizioa, zehazki ulertuta». Gai horri buruz hainbat aldiz erabaki du Konstituzio Auzitegiak, honako epai hauen bitartez, besteak beste: 122/1990, 123/1990, 8/1992, eta 126/2003.

Erabaki horietatik ondorioztatu behar dugu gizartearentzako ezinbesteko zerbitzuak emango direla ziurtatzeak mugatu egiten duela grebarako eskubidea baliatzeko aukera, eta horretarako nahitaezkoa eta ezinbestekoa dela interes desberdinak kontuan hartuta zuhertasunez jokatzea. Hori dela-eta, ziurtatzeak berme gisa balio behar du, eskubide kontrajarrien ezinbesteko koordinaziotik abiatuta; betiere, ulertuta grebalarien eskubidea mugatu beharko dela –amore eman, Konstituzio Auzitegiaren hitzetan–, haien eskubideak grebaren bidez babesteak ezinbesteko zerbitzua jasotzeko eskubidearen komunitate/pertsona titularrari eragiten dion edo eragin liezaiokeen kaltea larriagoa bada grebalarien errebindikazio edo eskakizunen arrakastarik ez izateak eragingo lukeena baino. Hori guztia dela-eta, aurrekoa kontuan hartuta eta greba-deialdi honen aurrean, grebaren garapenak dituen ezaugarri zehatzak hartu beharko dira kontuan, eta, bereziki, dagokion jarduera zehatza.

Greba honen deialdiari dagokionez, aniztasun eta heterogeneotasun handia ikus daiteke grebak eragindako zentroetan, bai egiten duten jardueragatik, bai grebaren konfigurazioagatik. Kasu batzuetan, komunitatearentzat funtsezkoak diren zerbitzuei dagozkien eremuei eragiten die – Osasun-arlokoak, egoitza-arlokoak (egoitza geriatrikoak, eguneko zentroak eta adingabeen egoitzak) eta hezkuntza-arlokoak Gainera, greba-deialdiak eragiten dien beste zentro batzuei ere eragiten die; hala ere, zentro horietan ematen den zerbitzua publikoa bada ere, greba honen ikuspegitik, ez dira funtsezkotzat jotzen. Hori dela eta, gobernu-agintaritzak gutxieneko zerbitzuak ezarri ditu aipatutako hiru eremu horietako

zerbitzu jakin batzuen funtsezkotasuna babesteko. Zerbitzu horiek agindu honetan zehazten dira. Osasun-eremuari dagokionez, garbiketa eta desinfekzioa dira, esterilizazioarekin batera, infekzioaren kate epidemiologikoa hausteko elementu lehenetsi eta eraginkorrenak ospitale-ingurumena deiturikoan. Ondorioz, ospitaleratuta dauden edo larrialdi-zerbitzuetara eta kirurgia-zerbitzuetara jotzen duten pazienteei behar bezalako arreta emateko, osasun-zentroek gutxieneko higiena bat izan behar dute, Konstituzioaren 43. artikuluan ezarritako osasun-eskubidea babesteko.

Egoitza-eremuan, kontuan hartu behar da geriatriako egoitzek, eguneko zentroek eta adingabeen egoitzek duten funtsezko izaera, neurri handi batean beren prestazioen onuradunak mendekoak direlako ematen dena, kasu gehienetan osasun-gabezia handiak dituztelako eta autonomia eta legez aitortuta dituzten mendetasun-maila desberdinei arreta emateko sistemaren laguntza integrala behar dutelako. Horri eguneroko bizitza pertsonalaren osagai handi bat gehitu behar zaio, eguneroko lanak egiteko. Pertsona horiek babes berezia dute Konstituzioan, Konstituzioaren 50. artikuluan aurreikusten den bezala, eta Konstituzioaren 15. eta 43. artikuluetan jasotako bizitzeko, osotasun fisiko eta moralerako eta osasunerako eskubideak ere kaltetuta daude. Horri dagokionez, zentro horien oinarritzko garbiketa beharrezkoa da behar bezalako higiena zaintzeko, egoiliarren edo eguneko zentroetako erabiltzaileen osasuna arriskuan jartzea saihesteko.

Hezkuntzaren eremuan, greba-deialdiak, besteak beste, haur-hezkuntza ematen duten zentroeiei eragiten die. Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioak, 1990eko azaroaren 30eko Tresna bidez Espainiako Estatuak berretsiak, 24. artikuluan jasotzen du haurrek ahalik eta osasun-mailarik handiena izateko eskubidea, eta horretarako funtsezko elementuak dira higiena, ingurumen-saneamendua eta istripuen prebentziorako neurriak. Horregatik, eta greba-deialdiaren eraginpeko ikastetxeak haurrak egunaren zati handi batean egoten diren tokiak direnez, beharrezkoa da neurriak hartzea zentro horietan higiena- eta osasungarritasun-baldintza minimo batzuk bermatzeko, haien osasuna, hazkundera eta garapena arriskuan jar ez dezaten, arreta berezia jarriz haur txikienei higieneari buruzko ezagutza gaitasun txikiagoa dutelako.

Aurrekoari dagokionez, argi dago beharrezkoa dela gutxieneko zerbitzu batzuk ezartzea, aurreko paragrafoetan aipatutako osasun-, bizitegi- eta hezkuntza-eremuetan ematen den zerbitzuaren funtsezkotasuna zaintzeko; izan ere, zerbitzu horiek ez finkatzeak grebarekin lortu nahi den helburua baino kalte handiagoak eragin ditzake, arriskuan jar baitaitezke greban artatzen diren pertsonen osasuna eta, kasu batzuetan, baita bizitza ere, pertsona horien kalte beratasuna dela eta. Hori dela eta, gobernu-agintaritzak agindu honetan zehazten

diren bulego horietarako gutxieneko zerbitzuak ezartzen ditu. Kontuan hartu behar da gutxieneko zerbitzuak betetzera deitutako pertsonen ehunekoa finkatzeko. Lau eguneko greba-deialdi baten aurrean gaude, bi eguneko aste desberdinetan bi egunetan bilduta.

Azken urteotan, gaur egungoaren antzeko greba-deialdia egin da, eta 2019ko abenduaren 12ko Agindua eman da Gipuzkoako eraikin eta lokalen garbiketa-sektorean deitutako egun bateko grebarako.

Agindu horrek, greba-deialdi honetako gutxieneko zerbitzuak finkatzeko premisa juridikoa izan gabe – Doktrina konstituzionalak debekatutako inferentzia –, aukera ematen du egiaztatzeko zer ondorio positibo edo negatibo izan dituzten, deialdi horretako gutxieneko zerbitzuek ezarritako zaintzetan, Konstituzioak babesten dituen eskubide eta ondasunetan – Grebakoan barne –.

Martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege-dekretuak (Lan Harremani buruzkoak) honako hau xedatzen du 10.2 artikuluan: «greba egiten denean edozein zerbitzu publiko edo onartuta dagoen eta geroraezina den beharrizanezko edozein zerbitzu eskaintzeko enpresetan, eta larritasun bereziko egoerak daudenean, gobernu-agintaritzak beharrezko neurriak hartu ahal izango ditu zerbitzuen funtzionamendua ziurtatzeko» eta «Gobernuak, era berean, horretarako beharrezkoak diren esku-hartezko neurriak har ditzake».

Konstituzionaltasuna aitortuta duen arau horretan (Konstituzio Auzitegiaren 11/1981 Epaia, apirilaren 8koa [KAB 1981\11]), Konstituzioaren greba-eskubideari buruzko 28.2. artikuluekin bat etorriz (bertan honako hau ezartzen baita: «eskubide horren erabilera arautzen duen legeak beharrezko bermeak ezarriko ditu gizartearentzako oinarrizko zerbitzuen mantentzea ziurtatzeko»), gobernuari aukera ematen zaio hainbat motatako berme-neurriak hartzeko, greba-kasuan funtsezko zerbitzuei euste aldera, eta hori egiteko neurrietako bat administrazio-ebazpenaren bidez jarduerari eusteko ezinbesteko gutxieneko zerbitzuak ezartzea da, eta lan-prestazioa eskaini behar duten langileei horiek bete ditzaten eskatzea.

Horregatik, gatazka honetan, martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege-dekretuak (Lan Harremani buruzkoak) 10.2. artikuluan aipatzen duen prozedura bideratu da, eta entzunaldia eskaini zaie eragindako alderdiei —langileen ordezkariari, enpresen ordezkariari eta inplikaturako administrazioari—, Jaurlaritzaren erabakiaren eragina duten zerbitzuei eta langileei buruzko proposamenak egin ditzaten.

Urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuak (Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak) 3. artikuluan titularrari esleitzen dizkio irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio

sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak) ezarritakoaren arabera laneko legedia gauzatzeko orduan bereganatutako eskumenak. Dekretu horren 2.j) atalean, zehazki, zerbitzu publikoak edo geroraezina den beharriazko edozein zerbitzu emateaz arduratzen diren enpresa, erakunde eta instituzioei eragiten dien greba-eskubidea gauzaten den kasuetan erkidegoaren funtsezko zerbitzuei eusteko behar diren bermeak ezartzeko eskumena erabiltzea jasotzen da, ekainaren 11ko 139/1996 Dekretuak eskuordetutako eskumena, alegia.

Horregatik guztiagatik, bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuak, Eusko Jaurlaritzaren ordezkariak hartuta, honako hau:

## **EBAZTEN DU:**

**Lehenengoa.-** Agindu honetan ematen diren gutxienerako zerbitzuak:

1. Bizkaiko eraikin eta lokalen garbiketaren sektoreko langileei 2022ko ekainaren 9, 10, 20 eta 21erako deitu zaien greba-eskubidea baliatzeko, osasun-, bizitegi- eta hezkuntza-arloan gutxienerako zerbitzu hauek mantendu beharko dira.
2. Aipatutako lanak langileek egingo dituzte, ondoren adierazten den moduan:

### **2.1. Oro har**

**2.1.1** Gutxienerako Zerbitzuak egin behar dituzten pertsonen ehunekoaren kalkularen emaitza zenbaki hamartarra bada, hau da, zenbaki ez oso bat, zati oso batek eta beste zati hamartar batek osatua, goragoko unitatera biribildu behar da.

**2.1.2** Gutxienerako zerbitzuak betetzerakoan grebara deitutako langileak eta greba egin ez dutenak bat badatoz, agindu honetan ezarritako ehunekoak kalkulatzeko, normalean lan horiek egiten dituzten bi kolektiboetako pertsona guztiak hartuko dira kontuan.

Era berean, honako ordena honen arabera izendatuko dira gutxienerako zerbitzu horiek egin behar dituzten pertsonak: lehenik, normalean zerbitzu horiek egiten dituzten eta grebara deituta ez dauden langileei deituko zaie; bigarrenik, normalean zerbitzu horiek egiten dituzten eta grebara deituta ez dauden langileei; eta, azkenik, langile horiekin gutxienerako zerbitzua betetzen ez bada, greban parte hartu nahi dutenei.

## 2.2 Osasun-eremua.

Osasun-zentroetan, larrialdi-zerbitzuek, ebakuntza-gelek, edukiontzietako hondakin sanitarioen bilketak, sukaldeak, janari-banaketak eta ospitaleratutako gaixoei arreta egokia emango zaie, jaiegun bateko ohiko langileekin.

## 2.3 Bizitegi-eremua.

Egoitza geriatrikoetan, eguneko zentroetan eta adingabeen egoitzetan, pertsonen segurtasunerako edo osasunerako arrisku larria eta berehalakoa dakarten eremuak baino ez dira garbituko, langileen % 20rekin. Horretarako, Laneko eta/edo Osasun Arriskuen Prebentzioko xedapen eta protokolo dokumentatuak izango dira erreferentzia-irizpideak.

## 2.4 Hezkuntza-eremua

Haurreskolak eta haurtzaindegietan egunero garbituko dira ikasleen zoruak, piletak, bainugelak eta komunak, eta hondakin organikoak bildu eta erretiratu dira. Zeregin horiek pertsona batek egingo ditu horretarako behar den gutxieneko denboran, eta inoiz ez da izango eguneroko ohiko lanaldia baino luzeagoa.

**Bigarrenena.-** Dagozkion administrazio-izapideak betez gero, aipatutako zerbitzuak aldatu ahal izango dira grebaren iraupenagatik, edo arrazoi higieniko biosanitarioak edo bat-bateko ezohiko arrazoiak direla-eta ezinbestekoa baldin bada.

**Hirugarrena.-** Gutxieneko zerbitzu gisa ezarritako zereginak egin behar dituzten langileak izendatzea

1. Aipatutako zerbitzuak bete behar dituzten langileak izendatzeko, agindu honen lehenengo ebazpen-zatiko 2.1.2. paragrafoan ezarritako lehentasuna errespetatuko da.
2. Langileen ordezkariari entzun eta gero, enpresaren zuzendaritzak esleituko ditu langileek bete beharreko eginkizunak. Nolanahi ere, Agindu honen "ebazten dut" ataleko lehen puntuan eta indarrean dauden legetan ezarritako mugak errespetatu beharko dira.

**Laugarrena.-** Gutxieneko zerbitzu gisa adierazitako jarduerak egiteko izendatutako pertsonak zeregin horiek egiteko behar duten denbora baino ez dute lan egiteko betebeharra.

**Bosgarrena.-** Agindu honen aurreko apartatuetan bildutako gutxieneko zerbitzuak ezin izango dira aldatu horiek egiteko izendatuta dauden langileen aldaketen edo lanuzteen ondorioz. Halakorik gertatuz gero, legez kontrakotzat joko dira eta horiek egiten dituztenak erantzule izango dira, eta erantzukizuna eskatuko zaie indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera.

**Seigarrena.-** Aurreko paragrafoetan xedatutakoak ez ditu mugatuko greba arautzen duen araudiak egoera horretan dauden langileei onartzen dizkien eskubideak, ez eta greba egitea eragiten duten eskaeren izapidetzeari eta ondorioei dagokienez ere.

**Zazpigarrena.-** Jakinarazten den egunean jarriko da indarrean agindu hau.

**Zortzigarrena.-** Agindu honen berri eman behar zaie interesdunei, betiere urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak) 40. artikuluan xedatutako moduan; halaber, ebazpenak administrazio-bidea agortzen duela jakinarazi behar zaie, eta horren aurka administrazioarekiko auzietarako errekurtoa jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren dagokion Salan, Ebazpena jakinarazten denetik kontaktzen hasita 2 hilabeteko epean, uztailearen 13ko 29/1998 Legeak (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duenak) xedaturikoaren arabera.

Halaber, eta urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak) 123. eta 124. artikuluetan xedatuari jarraikiz, jakinarazi egingo da agindu honen aurka aukerako berraztertze-errekurtoa aurkez daitekeela, lan-agintaritzan, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Vitoria-Gasteiz,

**BIGARREN LEHENDAKARIORDEA ETA  
LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUA**